

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1188/2019 FORU AGINDUA, ekainaren 12koa; honen bidez, Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eratutako errentak eratzikitzeke araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko 200 eta 220 ereduak onetsi dira, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako, eta ereduok telematikoki aurkezteko prozedura arautu da. (BAO Ekainaren 20koa)

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. eta 127. artikuluetan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarri denaren arabera, zergadunek zerga horien autolikidazioa aurkeztu behar dute eta dagokien zerga-zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen eran eta tokian.

Orain onartzen diren eredueta errepikatu egiten da aurreko ekitaldiko autolikidazioen edukien egitura bera. Hala ere aldaketa batzuk egiten dira 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauak sozietateen gaineko zergan sartutako berritasunetara egokitzeko. Foru Arau horren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena.

Ondoren zehaztuko dira 200 eta 220 eredueta zuzenean eragina duten aldaketa nabarmenenak.

Zergaren karga-tasak %4 murriztuko dira, eta, hala, %24 aplikatuko zaie enpresa txiki eta ertainei, eta %20 enpresa txiki eta mikroenpresei (gaur egun, %28 eta %24 aplikatzen zaie, hurrenez hurren). Murrizketa hori apurka-apurka egingo da, bi zergalditan: 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan, karga-tasak %2 murriztuko dira, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, beste %2ko murrizketa aplikatuko da.

Neurri horri dagokionez, muga batzuk ezartzen dira zerga-oinarri negatiboen konpentsazioan eta kenkarien aplikazioan, eta, kasu bietan, muga horiek aprobetxamendu fiskala denboran geroratzera eragiten dute. Hala, batetik, mikroenpresek eta enpresa txikiak %70eko mugarekin aplikatu ahal izango dute zerga-oinarri negatiboen konpentsazio-araubidea, eta gainerako kasuetan, berriz, %50ekoa izango da. Bestalde, kenkariak aplikatzeko kuota likidoaren muga %45etik %35era jaisten da, eta %70eko muga aplikatuko zaie ikerketa, garapen eta berrikuntzako jardueri. Neurri horien osagarri gisa, zerga-oinarri negatiboen konpentsazioak eta kenkariak, hurrenez hurren, errenta positibo nahikorik edo kuota nahikorik ez izateagatik eraginkorrak izateko indarrean dagoen 15 urteko epea 30 urte izatera pasatzen da.

Horrez gainera, birformulatu egiten da enplegua sortzeagatiko kenkaria eta haren zenbatekoa handitzen da, enpleguaren kalitateari lotzearen, kalitate hori egonkortasun eta soldataren

arabera neurtuta, eta ordainketa zatikatu bat ezartzen da enpresa handi eta ertainentzat, aitorpena egin den azken zergaldiko zerga-oinarriaren %5ekoa.

Bestalde, eguneratu egin dira hauen ereduak: Espainiako Bankuaren kontabilitate-arauen mende dauden erakundeen balantzea, galera-irabazien kontua eta ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria. Hala ereduok egokitzen dira Espainiako Bankuaren azaroaren 27ko 5/2017 Zirkularrera (kreditu-erakundeentzat emana, finantza-informazio publikoaren eta isilpekoaren arauetara eta finantza-egoeren ereduak).

Hori dela eta, foru-agindu honen xedea da Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko eredu berriak onartzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako, zergadunek beren tributu-betebeharrak betetzea erraztearren.

Hori dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikuluko 1. zenbakiak emandako gaikuntza erabilita, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko 200 eta 220 ereduak onartzea.

Bat. Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko 200 ereduak onetsi da, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako. Foru-agindu honen I. eranskin gisa erantsi da.

Bi. 220 ereduak onetsi da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubide bereziaren arabera tributatu duten talde fiskalek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietako autolikidazioa aurkezteko. Foru-agindu honen II. eranskin gisa erantsi da.

2. artikulua. 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak.

Bat. Aurkezpenaren izaera.

1. 200 ereduari dagozkion autolikidazioak nahitaez aurkeztu behar dira telematikoki, otsailaren 5eko 342/2008 Foru Aginduaren 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Foru-agindu horrek zergadun batzuek agiri jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen ditu.
2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubide bereziaren arabera tributatu duten talde fiskalek aurkeztu beharreko 220 ereduari dagozkion autolikidazioak nahitaez aurkeztu behar dira telematikoki, otsailaren 5eko 342/2008 Foru Aginduaren 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Foru agindu horrek zergadun batzuek agiri jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen ditu.
3. Erakunde batzuek Sozietateen gaineko Zerga Bizkaiko Lurralde Historikoan ordaintzen dute, eragiketa-bolumenaren arabera eta Arabako Lurralde Historikoko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko edo lurralde erkidegoko arautegia aplikatuta. Erakunde horien kasuan, autolikidazioa Arabako Foru Ogasunak, Gipuzkoako Foru Ogasunak edo Zerga Administrazioako Estatuko Agentziak prestatutako baliabide informatikoen bidez egin behar da, hurrenez hurren. Gero, lortutako autolikidazioa Bizkaiko Foru Ogasunari bidali behar diote, Bizkaibai sistemaren bidez, Bizkaiko Foru Ogasunaren webgunean

ezarritakoa prozedura beteta eta fitxategiak bihurtzeko programa egokia erabili ondoren.

Bi. Autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko baldintzak.

Autolikidazio hauek telematikoki aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Aitortzaileak edota, foru-agindu honen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirugarren pertsonen ordezkari izateko baimendutako aurkezleak BizkaiBai zerbitzuaren erabiltzailea izan behar du, hau da, Ogasun eta Finantza Sailarekiko harremanetarako baliabide telefoniko eta telematikoak erabiltzeko modua eduki behar du, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik.
2. Autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko, aitortzaileak edo aurkezle baimenduak fitxategia sortu beharko du bidali beharreko autolikidazioarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak prestatutako programak erabilia. Programek fitxategi bat sortuko dute likidazio bakoitzeko. Hala ere, aurkezle baimenduek autolikidazio batzuk batera aurkez ditzakete; horretarako aitorten anitzeko fitxategiak sortu behar dituzte (gehienez 25 aitorten bidalketako) BizkaiBai zerbitzuaren menu nagusiko «Aurkezle baimenduak» atalean deskarga daitekeen programa berezia erabilia.
3. Bidalitako autolikidazioari dagokion aitortzailea BizkaiBai zerbitzuan ari den erabiltzailea izan behar da. Autolikidazioa aurkezle baimenduak aurkezten badu, ordezkatzan dituenetako bat izan behar da, foru-agindu honen 6. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Hiru. Akats formalak dituzten autolikidazioak aurkeztea.

Telematikoki aurkeztutako autolikidazioetan akats formalik egonez gero, inguruabar horren berri emango zaio aitortzaileari, bide bera erabiliz: akats-mezuak bidaliko zaizkio, akatsok konpon ditzan.

3. artikulua. 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko prozedura.

Bat. Autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko prozeduran, aitortzailea edo, hala badagokio, aurkezle baimendua Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak Interneten duen Bulego Birtualarekin konektatu behar da (BizkaiBai Zerbitzua), <http://www.bizkaia.eus/bizkaibai> helbidean, eta, gero, jarraian azalduko dena egin behar du:

1. Sarrera-pantailan, BizkaiBai zerbitzuan identifikatu behar da; horretarako bi modu daude: zergadunen eta Ogasun eta Finantza Sailaren arteko harremanetarako onartutako ziurtagiri elektronikoa erabili edo, bestela, aitortzailearen edo aurkezle baimendunaren identifikazio-datuak sartu (erabiltzaile-identifikazioa, pasahitza eta koordinatua).
2. Identifikazioa zuzena bada, BizkaiBai programaren menu nagusia agertuko zaio, eta hor, «Sozietateak 2018» ikonoa sakatu beharko du, edo, bestela, «Zerga aitorten telematikoak» atalean «Aurkezpenak» aukera hautatu beharko du.
3. Bidali beharreko autolikidazioaren fitxategia hautatu behar du. Fitxategiaren izena honelakoa izan behar da: lehen 8 karaktereak aitortzailearen IFZrenak izan behar dira eta luzapena zergaren arabera (200 eredu arrunterako eta 220 talde fiskalen eredurako).
4. Hautatutako fitxategia Ogasun eta Finantza Sailari bidali behar dio.

5. Bidalitako fitxategian akatsik ez badago, bidalitako autolikidazioaren laburpena bistaratuko da pantailan. Nahi izanez gero, azalaren zirriborroa ere bistara daiteke.
6. Autolikidazioarekin ados egonez gero, onartutako ziurtagiri elektronikoaren PINa sartu behar da edo sistemak koordinatu bat eskatuko du, BizkaiBain sartzeko erabilitako identifikazioaren araberakoa: hura adierazi eta autolikidazioa eraz aurkeztuko da.
7. Autolikidazioarekin batera agiriren bat bidali behar izanez gero, pantaila bat agertuko da, eta, bertan, bidali beharreko frogagiriak eta aurkezteko jarraibideak azalduko dira.
8. Aurkezpena onartuz gero, Ogasun eta Finantza Sailak autolikidazioaren behin betiko laburpena pantailaratuko du. Erabiltzaileak ereduaren azal ofiziala inprimatu ahal izango du, zirriborroan adierazitako informazio guztiarekin eta sistemak sortutako kontrol-informazioarekin, eta hori guztia 32 karaktereko zigilu elektroniko batek balioztatuko du.
9. Aurreko 7. zenbakian ezarritakoaren arabera frogagiriak bidali behar badira, erabiltzaileak telematikoki erantsi behar dizkio autolikidazioari, 10. zenbakian zehazten den moduan.

Halaber, aitorzaileak edo aurkezle baimenduak beste dokumentu edo frogagiri batzuk aurkeztu ahal ditu autolikidaziorako 200 edo 220 ereduarekin batera, bere borondatez.

10. Frogagiriak telematikoki aurkezteko honako argibide hauei jarraitu behar zaie:
 1. Aurkeztu baino lehen, erantsi beharreko agiriak ordenagailuan eskaneatu behar dira.
 2. Sistemak TIFF edo PDF formatuetako dokumentuak soilik onartzen ditu. Eskaneatutako agiriak Tiff formatuan badaude, ConversorTiff programaz prozesatu behar dira (doan eskura daiteke BizkaiBai Zerbitzuan). Programak fitxategi bat sortuko du, bidaltzeko eta prozesatzeko formatu egokia duena. PDF formatuko agiriak ez dira bihurtu behar. Bidaltzen diren dokumentuek 8 MB eduki ditzakete gehienez. Erantsi nahi den informazioak muga hori gainditzen badu, zatituta bidali behar da, mugaren arabera zatiak eginda.
 3. Ondoren, autolikidazioa BizkaiBairen bitartez aurkeztuko da, aurreko puntuetan adierazi den bezala.
 4. Aurkezpena amaitu ondoren, «Bidali dokumentazioa» ikonoa sakatu behar da, dokumentazioa eransteke.
 5. «Aztertu» botoia klikatu behar da eta gero PDF fitxategia edo Conversor Tiff programaren bitartez sortutakoa hautatu. Gero «Bidali» klikatu behar da, hautatutako fitxategia Ogasun eta Finantza Sailera bidaltzeko.
 6. Prozesua bidali nahi diren agiri guztien zerrenda osatu arte errepikatu behar da. Hori egindakoa, «Bidali» sakatu behar da, eransketa gauzatzeko.

Segurtasuna gehitzeko, onartutako ziurtagiri elektronikoaren PINa sartu behar da edo, bestela, sistemak eskatutako koordinatua, BizkaiBain sartzeko erabilitako identifikazioaren araberakoa; hori eginez gero, autolikidazioari erantsitako dokumentazioa formalki aurkeztuta geratuko da.

Bi. Hala ere, aurreko puntuan autolikidazio bakarra bidaltzeaz adierazitakoa gorabehera, foru-agindu honen 6. artikuluan aipatutako profesionalek autolikidazio anitzeko fitxategiak sortu ahal izango dituzte horretarako ezarriko diren prozedura teknikoaren arabera.

4. artikulua. Aurkezteko epea.

Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzikitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) 2018ko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietako autolikidazioak (positiboak, negatiboak zein itzulketarako eskubidea dakartenak) zergaldia amaitu osteko sei hilabeteen ondorengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu beharko dira, eta, diru-kopururen bat sartu behar bada, epe horretan sartu beharko da ere. Hala ere, epe horren hasieran Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ez badu zehaztu autolikidazioa aurkezteko era, orduan, autolikidazioa aurkezteko modua zehazten duen xedapena indarrean jarri osteko hogeita bost egun naturaleko epearen barruan aurkeztu beharko da autolikidazioa.

5. artikulua. Dokumentazioa.

Bat. Zergadunek agiri hauek bidali behar dizkiote Foru Ogasunari autolikidazioarekin batera:

- a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 61. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzen duten inbertsioak frogatzen dituzten fakturen kopia, eta faktura horien zerrenda, faktura bakoitzak datu hauek zehaztuta dituela: hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta bakoitzari dagokion kontabilitateko partida.
- b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 11/2013 Foru Arauaren 53. artikuluan aipatzen den ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezia gauzatzeko egindako inbertsioak frogatzen dituzten fakturen kopia.
- c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 36. artikuluan aipatzen den berrinbertsioaren ondoriozko salbuespena erabiltzen duten inbertsioak frogatzen dituzten fakturen kopia.
- d) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan aipatzen den enpleguaren sorkuntzagatiko kenkaria aplikatzen bada, autolikidazioaren epealdian eta aurrekoan enpresaren plantillan lan-kontratu mugagabea izan duten langileen alden eta baje zerrenda. Datu hauek zehaztu beharko dira: kontratu mugagabearen data, bajaren data (halakorik egon bada), kontratu mota, lanaldiaren iraupena eta, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako batean sartuta dauden pertsonen kasuan, zergatik dauden sartuta halako talde batean. Horrez gainera, kenkaria sortzen duten langileen urteko soldata gordina adierazi behar da.
- e) Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 41. artikuluan 2. zenbakian xedatutakoaren arabera errentak egozteko araubideko erakundeak emandako ziurtagiria.
- f) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ikerketa- eta garapen-jarduerengatiko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria aplikatzen bada, arlo horretako eskumena daukan Eusko Jauriaritzako edo Bizkaiko Foru Aldundiko sailak edo haiei atxikitako erakunde edo entitate batek egindako txosten arrazoituaren kopia aurkeztu behar da, 11/2013 Foru Arauaren 64. artikuluan eta abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 35. eta 36. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik. Edo, bestela, foru-arau horren 62. eta 63. artikuluen 2. zenbakian, zergadunaren jarduerak ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikotzat jotzeko eskatzen diren baldintza zientifiko eta teknologikoak betetzen direla frogatzen duen bestelako edozein agiri, lehen aipatutako 64. artikuluan 1. zenbakian ezarritakoa kontuan hartuta. Edonola ere, jarduera horiei egotzitako gastuen eta inbertsioen zenbatekoak zehaztu behar dira.
- g) Erakundearen administrazio kontseiluko edo kontseilu artezkariko idazkariaren ziurtagiria, honako hau egiaztatzeko: aitortutako ekitaldia itxi denean erakundearen

kapitalean %5eko zuzeneko partaidetza edo handiagoa izan duten pertsona fisiko eta erakunde guztiak agertzen direla aitortzailearen bazkideen/partaideen zerrendan. Edo, bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen duten baloreen kasuan, %1ekoa edo handiagoa duten guztiak agertzen direla. Kapital Sozietateei buruzko Legea eta Euskadiko Kooperatiben Legea aplikatu behar ez duten erakundeek ez dute ziurtagiri hori aurkeztu behar. Halaber, ez da ziurtagiri hori aurkeztu behar sozietatearen kapitalaren %95 baino gehiago duten titularrak adierazten badira, edo, bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen duten baloreen kasuan, %99 baino gehiago dutenak adierazten badira.

- h) Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 24. artikuluan aipatzen den doikuntza egiteko partaidetzei buruzko informazioa.

Bi. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubidearen arabera tributatzeko duten talde fiskalen kasuan, aipatutako foru-arau horren 83. artikuluan xedatutakoaren arabera, taldeko sozietate bakoitzak, bai eta taldeko sozietate nagusiak edo taldeko buru denak ere, egin beharreko autolikidazioak 200 ereduan aurkeztuko dira eta eredu oso-osorik bete beharko da.

Halaber, autolikidazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko aurkeztu behar ez direnean, taldearen ordezkari diren entitateek, 220 ereduarekin batera, aurreko lerroaldean aipatzen den banakako tributazio araubidean taldeko sozietate bakoitzak egindako autolikidazioen kopia bat aurkeztuko dute, taldearen ordezkaria den entitatearen autolikidazioaren kopia barne.

Hiru. Autolikidazioari nahitaez erantsi beharreko agiriak hamabost eguneko epean helarazi behar zaizkio Ogasun eta Finantza Sailari, autolikidazioa aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita. Agiri horiek telematikoki aurkeztu beharko dira, BizkaiBai sistemaren bidez, azal ofizialaren kopia batekin batera.

Lau. Zerga Administrazioak beste administrazio edo erakunde ofizial batzuei bidali ahal izango dizkie autolikidazioarekin batera edo autolikidazioa eta gero aurkeztutako agiriak, txostena egin dezaten, agiri horiek zergapekoak aitortutako partidaren bat frogatzen badute. Foru agindu honetan ezarritako epean erakundeak ez badu aurkezten eskatutako agiriren bat, erakundeari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, kenkarirako eskubidea frogatu beharra ez betetzat joko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. Lankidetzaren hitzarmen edo akordioak.

Bat. Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian xedatutakoarekin bat etorriz, Ogasun eta Finantza Sailak lankidetzaren hitzarmen edo -akordioaren bidez baimena emango die erakunde edo elkarte aintzatetsi batzuei euren bazkide edo kide diren profesionalen autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak bide telematikoen bitartez aurkezteko, beste batzuen izenean.

Bi. Aurreko zenbakian aipatutako profesionalen kasuan-kasuan behar den ordezkari izan behar dute beste zergadun batzuen 200 eta 220 ereduen autolikidazioak telematikoki aurkezteko.

Profesional horiek, gainera, Ogasun eta Finantza Sailak eskatzen dien guztietan frogatu behar dute euren ordezkari izan behar diren lankidetzaren hitzarmen edo -akordioan ezarri bezala.

7. artikulua. Ordainbideak.

Bat. Itzultzeko diren autolikidazioetan, nahitaezkoa izango da banku-helbideratzea. Gainera, aukera hori ezeztatzen izango da, eta baldintza hauek bete behar ditu:

1. Bizkaiko Foru Ogasunak jakin behar du nor den IBAN kodearen titularrak.

2. IBAN kodearen titularra aurkeztutako autolikidazioaren aitortzailea izan behar da.

Autolikidazioaren emaitza dirua ordaindu beharra bada, berriz, zergadunak banku-helbideratzearen bidez edo ordainketa-gutunaren bidez egin ahal izango du ordainketa.

Autolikidazioaren emaitza dirua ordaindu beharra bada eta banku-helbideratzearen bidez ordaintzea aukeratu bada, Bat zenbakian adierazitako bi baldintzez gainera, hautatutako finantza-erakundea Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-billetako laguntzailea izan behar da.

Bi. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, ordainketa transferentziaren bidez egin daiteke, banka elektronikoa erabilia, banka mota hori erabili ahal izateko BizkaiBai sistemari berariaz atxikitako banku erakundeetatik.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

Foru-agindu hau 2019ko ekainaren 30ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko ekainaren 12an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

I. ERANSKINA

200 Eredua.

[200 eredua](#) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

II. ERANSKINA

220 Eredua.

[220 eredua](#) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.